

3x3 SASKIBALOI TXAPELKETARAKO OINARRIAK

Non eta Noiz?

Txapelketa **2017ko apirilaren 21 eta 22an** jokatu da zezen plazan eta Ipurua Kiroldegian.

Norentzat?

Txapelketa **2003/01/01tik-2006/12/31ra** bitartean jaiotako ikasleei zuzenduta dago.

Izen ematea

Saskibalo txapelketan izena emateko epea **2017ko martxoaren 24tik apirilaren 10 arte** izango da.

Lehiaketan parte hartzeko izena emateko bideak:

- Internet bidez: www.eibar.eus
- Telefonoz: 010 edo 943708400.
- Bertaratuta PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Izen ematea doakoa da.

Beharrezko dokumentuak: izena ematerakoan ez da dokumenturik aurkeztu behar, baina ondoren bai. Norgehiagoken informazioa udaleko webgunean (www.eibar.eus) argitaratu ondoren, Indianokua Gaztelekuan ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira apirilaren 20a baino lehen (hau barne), edo beranduenez lehenengo norgehiagoka jokatu aurretik:

- 3x3 saskibalo txapelketan parte hartzeko baimena behar bezala beteta eta adingabeen gurasoek edo tutoreek sinatuta.
- Baimen-emateen (aita, ama, tutoreak) eta norgehiagokan parte hartuko duten adingabeen NAN, AIZ, pasaporte edo antzeko agiriaren fotokopia.

Dokumentazio hau aurkezten ez duten adingabeek ezingo dute txapelketan parte hartu.

Partehartzaileak

Taldea **gutxienez hiru** partaidez osaturik egongo da eta **gehienez lau partaidez**. **Partidu guztietan, taldean izena eman duten partaide guztiek jokatu beharko dute, bestela partidua galdutzat emango zaie.** Taldea inskribatuko da izen ez iraingarri batekin eta harremanetarako partaide baten helbide elektronikoa eta telefonoa adierazi beharko dira.

Norgehiagokak

Izena eman duten talde kopuruaren arabera, antolatzaileak talde ezberdinen arteko norgehiagokak eta jokatzeko denbora tarteak zehaztuko ditu.

Sariak

Saski Baskonia saskibalo taldeak adin tarte bakoitzeko talde irabazleko jokalaria bakoitzeko bina sarrera oparituko ditu, Gasteizko Buesa Arenan saskibalo partida bat ikusteko.

Antolakuntza

Txapelketan zalantzaren bat edo beste suertatuko balitz, antolatzaileak momentuan erabakitzeke ahalmena izango du. Txapelketa honetan izena emateak bai oinarriak bai arauak eta bai kirol-epaileen erabakia onartzea suposatzen du.

Jokoaren arauak

1. araua.- Saski bakarrean jokatzen da.
2. araua.- Talde bakoitzeko 3 jokalarik hasiko dute partidua, gainontzeko taldekideak ordezeko moduan egongo dira.
3. araua.- Jokoa 15 puntutara izango da eta bi puntuko diferentziaz irabazi beharko da. Jokoaren gehienezko iraupena 10 minutukoa izango da denbora jarraian (denbora etenik ez da egongo). Gehienezko iraupena izena emandako talde kopuruaren arabera zehaztuko da. Denbora amaitzean puntu gehien dituen taldeak irabaziko du.
4. araua.- Jokoan den partidua berdinketan amaitzen bada, araututako denbora amaitzen den unean jokoan diren taldekide guztiek jaurtiketa libre bat egingo dute eta saskiratze gehien lortzen duen taldeak irabaziko du. Berdinketan amaituz gero, ordezekoek botako dute. Berdinketa jarraituz gero, banaka jaurtitzen joango dira puntu bateko diferentzia gertatu arte.
5. araua.- Saskiratze bakoitzak puntu 1 balio du. Hiruko marratik haratago egiten diren saskiratzeek 2 puntu balioko dute. Jaurtiketa libreak puntu bat balio du.
6. araua.- Aurreneko baloiaren jabea zozketa bidez zehaztuko da.
7. araua.- Baloiaren jabetza aldaketa bakoitzean, defentsa-errebotearen edo baloi lapurreta baten ondoren, baloia hiruko marratik haratago irten beharko da.
8. araua.- Saskiratze bat izan ondoren, baloia taldez aldatzen da eta jokoa kantxaren erdialdetik hasten da.
9. araua.- Baloia kanpora irteten baldin bada, alboko marratik jarriko da jokoan.
10. araua.- Bi aurkarien artean lehia gertatzen bada, baloiaren jabetza defentsan zebilen taldearentzat izango da beti.
11. araua.- Faltak beti alboko marratik aterako dira. Taldeko 8. faltatik aurrera, falta guztiak jaurtiketa libre batekin zigortuko dira. Jaurtiketa libre sartuz gero baloiaren jabetza taldez aldatuko da; jaurtiketa libre huts eginez gero, baloiaren jabetzak jaurtiketa libre huts egin duenarentzat izaten jarraituko du.
12. araua.- Jokalari batek 5 falta egingo balitu kanporatua izango litzateke. Talde batek jokoan jarraitu ahal izango du taldekide bakar batez geratu arte. Egoera hori gertatuko balitz, kantxan taldekide gehien dituen taldeak irabaziko luke partidua.
13. araua.- Nahitako kolpeak edo faltak ez dira onartuko eta jaurtiketa libre batez zigortuko dira eta baloiaren jabetza kolpea jasan duen taldeari egokituko zaio.

Goza dezagun joko garbiaz, kiroltasunez eta euskaraz.

Ondo pasa!